

urteak emana

2023a gurean, aldaketen urtea izan da. Kide batzuk joan eta beste batzuk etorri dira, lan egiteko forma eta modu berriak probatzen saiatu gara, kolaboratzaile berriak izateko aukera eduki dugu, betiko proiektu batzuk itxi, eta bide berriak arakatzeari ekin diogu... Beraz, frogatu ahal izan dugu, Eihera "etengabeko eraldaketa" hori bazela.

Bestalde, aurten hiru ildo nagusitan egin dugu lan: Herri feministak, Pedagogia feministak eta LGTBI+ lanketak deitzen ditugun horietan. Proiektuen izaerei begiratuta, argi dago, txikitik eta tokian tokitik eragitean jarraitzen dugula, hain zuzen, auzo eta herrietatik, hezkuntzatik eta norbanako zein komunitateak helburu dituen politikak diseinatuz; eta hortik lanean jarraitu nahi dugula.

Beraz, eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen, batetik, gure proiektu, ideia eta egiteko moduetan konfiantza izan duten herrietako teknikari, zinegotzi zein alkateei. Herrien eraldaketa feministetan egiteko ezinbestekoa baita elkar-lan eta apustu politiko, tekniko eta batez ere humanoa. Horri lotuta, aurten bereziki eskertu nahi ditugu herrietan dauden militante, aktibista eta norbanako esku-zabal guzti horiek. Zuek gabe bai ez dagoela eraldaketa ez proiekturik.

Nola ez, eskerrak berriz ere, urte mugitua izan duen Hezkuntzako irakasle, hezkidetzaren arduradun, zuzendaritza talde eta familia kide inplikatu guztiei; baina batez ere hain ondo hartu gaituzten ikasle horiei guztiei, zuek zarete hurrengo eskolak indarrez hartzeko arrazoia.

Eta azkenik, ezin aipatu gabe utzi, aurten ekin berri dugun EIHERA PLAZA. Hala deitu diogu gure komunitatearekin egiten ditugun lanketa horiek partekatu eta interesekoak diren gonbidatuak ekartzeko espazio baten sorrerari. Milesker gure Eiherrakide guztiei. Beraz, hemendik pozik ematen diogu urteari amaiera eta, datorrenean elkartuko garelakoan, segi eiherrari eragiten!

Aitor, Iñigo, Jone, Kattalin, Laura, Leire, Sara, Unai, Uxue.

HERRI FEMINISTAK

- Alegiako emakumeen parte-hartzea sustatzeko ikasturteko lanketa.
- Bidebrietan emakumeen parte-hartze soziala sustatzeko proiektua.
- Donostiako Ekialde Barrutiko Jabekuntza Eskolaren kudeaketa eta programazioa.
- Olaberrian genero berdintasunerako herri-lanketa.
- Ordiziako Jabekuntza Eskola feminista sortu, dinamizatu eta koordinatzeko aholkularitza teknikoa.
- Segurako gazteen espazio ez-formaletan hezkidetzaren lantzeko herri proposamena.

PEDAGOGIA FEMINISTAK

- Bergarako LH5 eta LH6 mailetako ikasleekin hezkidetzaren saioak.
- Bergarako Aranzadi Ikastolan trans errealitateak lantzeko irakasleentzako formakuntzak.
- Donostiako ikastetxeetan LGTBI+ lanketak:
 - <ZUBIRI MANTEO <HERRI AMETSA IKASTOLAN <BIDEBERRI
- Elgoibarko MEKAN genero eta LGTBI+ gaiak lantzeko, pedagogia feminista formakuntza saioak irakasleekin.
- Errenteriko batxilergo eta Lanbide Heziketa zentroetako pedagogia feministen lanketa:
 - <KOLDO MITXELENA <OIARTZO <DON BOSCO
- Gernikako BHIIn irakasleentzako jarduna genero ikuspegitik berrikusteko eta tresna feministak lantzeko saioak.
- Lauazeta ikastola BHIIn hezkidetzaren esku-hartze iraunkorra.
- Lasarten pedagogia feministen urteko lanketa.
 - <IES OIARTE BHIKO IKASLE ETA IRAKASLEEKIN INDARKERIA
 - MATXISTAREN PREBENTZIOARAKO SENTSIBILIZAZIOA
- Leitzako Amazabal BHIko ikasleekin esku-hartze berezitua.
- Mondragon Unibertsitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleekin pedagogia feministen lanketa.
- Mutriku BHI-ko ikasleekin hezkidetzaren proiektu berritzailearen lanketa.
- Orioko Zaragueta Herri Eskolan iraultze pedagogien lanketa.

LGTBI+

- Azpeitiako udalean LGTBI+ pertsonen beharrik identifikatu eta bizi baldintza duinak bermatzeko neurrien diseinua.
- Ibarako LGTBI+ pertsonen bizi baldintzak hobetzeko neurrien diseinua.
- Villabonako LGTBI+ mahaiaren sorrera eta neurrien plangintzatzerako bidelaguntza.
- Zumaiako LGTBI+ memoria jasotzeko proiektua.

EREITEN ETA ERAGITEN

EIHERA PLAZA:

- Miren Guilloren "Sangre y resistencia" liburuaren aurkezpena.
- Christo Casasen "Maricas malas" liburuaren aurkezpena.
- Miren Aranguren, Monika Mendiberri eta Ainara Santamariaren "Ez dadin bizitza eten" liburuaren aurkezpena.
- Maricorners 2023: III congreso internacional de estudios interdisciplinares LGTBIQ+ en español kongresuan parte-hartzea.
- Colorful childhoods: 1ª conferencia internacional sobre infancia y adolescencia lgtbiq. La importancia de la escucha kongresuan "De la diversidad a la norma" ponentzia.
- UEUko Hizkuntza hautuen eta generoaren arteko gurutzaketa arnaguneetan ikastaroan "Nolakoa da sexu-genero sistema arnaguneetan? Badute bereizgarririk?" hitzaldia.
- En Plenas Facultades unibertsitateko sexu eta droga prebentzio programan lanketa modulua.
- Indarkeria matxistak nerabezaroen VII. jardunaldia: sexkidetzaren, sexu-heziketa hezkidetzarekin nerabezaroen "Gizonekin pornografialantzeko estrategia feministak" hitzaldi-tailerra.
- Arrasateko Emakumeen Txokoko 20. urteurrenean "LGTBI+ pertsonen bizi-baldintzak hobetzeko planak. Posible al da hori udalgintzatik?" hitzaldia.
- Gabriel Aresti euskaltegiko ikasle eta irakasleekin lanketa feminista II.
- Gizentasuna desmuntatzen tailerrak:
 - <LESAKA <ERMUA <BORTZIRIAK